

BETEKADA BIDEZKO

NAHASMENDUA EKIDITEKO

TRESNA

*June Agirrebaltzategi, Naroa Agorria,
Gaizka De Bernedo, Pablo Fernandez de
Corres eta Xabi Nanclares*



BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua gure bezero ia guztien eskura egoteko online denda bat edukitzea erabaki dugu, hau da, gure produktua gure web horrialdearen bitartez eros daiteke. Modu honetan, ez ditugu bezeroak denda fisikora etortzera behartuko. Hala ere, denda fisikoan ere eros daiteke gure gailua.

Komunikazio kanala erabiliko dugu interneten gure produktua saltzeko. Horrela, bezero gehiagotara helduko gara eta urrun bizi den jendeak erraztasunak izango ditu gure produktua eskuratzerako. Banaketari dagokionez, esternalizazioa erabiliko dugu, hau da, beste enpresa bat kontratatuko dugu gure produktua bana dezan. Garbi utzi nahi dugu alokatuko dugun enpresak ahalik eta lan baldintza duhinenak edukiko dituela, ez baikaude alde normalean halako enpresetako banatzaileek jasotzen dituzten tratuekin.

Horrez gain, denda fisikoak ere izango ditugu. Handik antolatuko dugu dena eta mantenimendua handik eramango dugu. Norbaitek arazoren bat izango balu, hara etor liteke aurrez aurre hitz egitera, edo bestela webgunearen bidez erantzun geniezaioke habian jarriko dugun "bezeroaren-arreta" atalaren bitartez.